

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2020KO EKAINAREN 3KO BILERAREN AKTA

Presidenteak deituta, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, 2020ko ekainaren 3an, 10:00etan, eta honako hauek dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

DEITUAK

PRESIDENTEA

Miren Nekane Murga Eizagaechearria andrea

PRESIDENTEORDEA

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

KONTSEILUKIDEAK

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Fátima Ansotegui Elordi andrea

IDAZKARIA

Ibon Etxeberria Olañeta jauna

Era berean, Juan Luis Diego Casals jauna, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren zuzendari nagusia etorri da Kontseiluaren bilerara, presidenteak gonbidatuta.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren zuzendari nagusiarekin batera, Andoni Arcelay Salazar jauna etorri da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Asistentzia Sanitarioko zuzendaria.

Hernando Lacalle Edeso jaunak bertaratu ezina adierazi du.



GAI-ZERRENDIA:

LEHENENGOA.- Administrazio Kontseiluak 2020ko maiatzaren 15ean egindako bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea

Akta ez da irakurri, Kontseiluko kideei alde zuzenetik bidali baitzaie. Presidenteak balioetsi ostean, onartu egin da administrazio-kontseiluaren aurreko bileraren akta, 2020ko maiatzaren 15eko, 4. eta 9. puntuetan proposatutako aldaketekin.

BIGARRENA.- Inbertsio Plana 2020: egoera eta plangintza.

Bestalde, Zuzendaritza Nagusiak Inbertsio Plana aurkeztu du. Berrikusi eta eguneratzea proposatu du, COVIDak ekarri duen jardueraren nahitaezko etenaldia dela eta.

Presidenteak eskatuta, bloke kirurgikoen inbertsioen egoerari buruzko informazio gehiago eman da, baita pandemia dela kausa premiaz egin behar izan diren inbertsioei buruz ere (esaterako, zentroak sektorizatzea).

Epe labur eta ertainerako inbertsio-plana behar da orain, zabala eta anbizio handikoa, eta sistema sanitarioa egoki berregituratzera bideratua.

HIRUGARRENA: Itxaron-zerrendak: pandemiaren ondorioz sortutako egoeraren txostena eta jardun normalizatura itzultzeko plangintza

Asistentzia Sanitarioko zuzendari Andoni Arcelayk azaldu duenez, itxaron-zerrenden egoera okerragoa da maiatzaren 31n, izan den krisi sanitarioak eragin handia izan baitu horretan.

Lanean ari gara aurreikuspenak birmoldatzen eta itxaron-denborak laburtzeko neurriak egokitzen. Gainera, aurreikuspen berri horiek kontuan hartu dute pandemia udazkenean berriro ager daitekeela eta asistentzia-jarduera areago geldotzeak ondorioak izan ditzakeela.

LAUGARRENA.- 2020aren itxiera

Gainerako puntuetan bezala, urte-itxierako aurreikuspenak nabarmen aldatu eta okertu dira, koronabirusak ESI guztien jardunari zuzenean erasan baitio.

Azken hiru hilabeteetan gainerako jarduera sanitarioak ia erabat geldirik egon direnez, hornigai sanitarioen erosketak ezinbestean areagotu direnez eta udazkenean pandemia berriro hedatu daitekeela nahitaez hartu behar denez kontuan, halaber, aurreikusi behar da erakunde publikoaren kontuek kalte ekonomikoak nozituko dituztela.

BOSGARRENA.- 2019ko urteko kontuak Auditoretza

Auditoretza-txostena ez dago prest kontseiluaren bilkura honetarako. Beraz, hurrengo bilkurarako utzi da.

SEIGARRENA.- AUO-ko sukaldeak Txosten-eskaeraren egoera

Gaiari berriro helduko zaio alarma-egoera igaro ondoren, behin ohiko jardunera itzulita.

ZAZPIGARRENA.- Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu erakundeetako plantilla


Zuzendari nagusiak aurkeztutako komunikazio erantsiak eta egiturazko plantilla ikusita, 2020ko apirilean egindako lekualdatzeak jakinarazten dira.

ZORTZIGARRENA.- Eskeak eta galderak

Eta lantzeko beste gairik ez denez, bilkura amaitutzat jo da 2020 ekainaren 3an, 12:30ean.



**Sin.: IBON ETXEBERRIA OLAÑETA
IDAZKARIA**



**Sin.: MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHEVARRIA
PRESIDENTEA**

